



*Bilbora iritsi da Ekimen Ibiltaria, eta larunbata arte geratuko da Bizkaiko hiriburuan. Hala, datozen egunetan egingo ditugun jardueren berri eman diegu gaur herritarrei eta, horrekin batera, prekarietatearen mapa bat banatu diegu. Hain zuzen ere, Bilbon zehar ibilbide bat egingo dugu ostiralean, azaroak 24, prekarietatearen mila aurpegi dituela erakusteko. Mapak gune prekarioenak identifikatzen ditu, eta herritarrek dagoeneko euren eskura dute.*

Ekimen Ibiltariaren leloa indartu dugu Bilbon, "Lan duina, hiri duina, bizi duina"; leloarekin egingo baititugu egunotako protestak, aldarriak eta jarduerak: hiri duin bat ere nahi dugulako. Izan ere, Bilboko hiri eredu berriak prekarietate eta esplotazio forma berriak sustatzen ditu; Azpikontratazioa, behin-behinekotasuna eta lan fragmentazioa, kasu.

Horrenbestez, ostiralean, 10:00etatik 13:00etara, prekarietatearen mapa eskuetan, ibilbide gidatu bat egingo dugu Bilboko errealitateak azaleratzeko eta salatzeke. Hauek izango dira geltoki nagusienak:

- 1.- Osasungintzan: Osasun mentalen zentroak
- 2.- Ostalaritzan: Dominos pizza/ fast food.
- 3.- Merkataritzan: Carrefour/saltoki handiak eta TTIPek-CETAK daukan eragina.
- 4.- Telemarketing/kiroldegietan: Azpikontratazioa.
- 5.- Soziokomunitarioan/arlo sozialan: Foru Aldundiak ematen dituen zerbitzuen gabeziak.
- 6.- Eraikuntzan: Urbanismoaren eragina- AHT
- 7.- Soziokomunitarioan/arlo Sozialan: Etxez etxeko laguntzako langileen egoera

Garbiketako langileek geltoki bakoitzean beraien aldarrikapenak egingo dituzte.

Bilboko sinbolo berria den Guggenheim prekarietatearen adibide garbi bat da. Horregatik, ostiraleko ibilbidearen ekitaldi nagusia bertan izango da, arratsaldean, 17:00etatik 18:00etara.

—